

# ***Ingurumen Buletina***

## ***ELAren 13. Kongresu Konfederaleko ale berezia***

- 1. Eredu aldaketaren beharra.***
- 2. Ingurumen atalaren garrantzia arlo konfederalean.***
- 3. Ingurumenari dagozkion ponentziako puntuei eginiko ekarpen eta emendakinak.***
- 4. Etorkizuneko lan ildoak ingurumen atalean.***
- 5. Gomendatutako bideoa.***

Urtarrilaren 23 eta 24an ELAk 13. Kongresu Konfederala ospatu zuen Bilboko Euskalduna Jauregian. Bertan 736 delegatu eta beste 300 gonbidatu elkartu ginen sindikatuak azken lau urteetan egindakoa eta hurrengo lau urteetan egingo dugunari buruz hausnarketa egiteko. Ingurumen atalari dagokionez, ponentziaren hainbat ataletan jaso dira hausnarketak. Ingurumen gaitan eginiko emendakinak ugariak izan dira eta honek ponentzia hobetzen lagundu digu, eta sindikatuaren baitan kontzientziazio mailak gora egin duela ikusi dugu.

Hilabete honetako buletina kongresuan ingurumen gaien inguruan hausnartutakoa eta onartutakoa azaltzeko ale berezia da. Hurrengo lau urtetarako lan ildoak ere zehaztu dira eta hemen azalduko ditugu.

### **1. Eredu aldaketaren beharra**

Ingurumenari buruz lehenik eta behin egin beharreko hausnarketa sufritzen ari garen krisiaren azterketan egin behar da. Krisi hau ekonomikoa, soziala eta demokratikoa izateaz gain krisi ekologikoa ere bada, eta irtenbidea bilatzerakoan kontuan izan behar dugu. Bestelako ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredu bat behar dugu, oraingoak amildegira eraman baikaitu.

Diru bihur daitekeena bakarrik hartzen du aintzat egungo ekonomia ereduak. Horrenbestez, funtsezko zenbait alderdi ekonomiaren eremutik kanpora geratzen dira, ez baitaie balio ekonomikorik ematen. Baina gizakiok bi faktore hauen mende gaude: natura, batetik, eta beste gizaki batzuek eskaintzen diguten denbora, bestetik (etxeko zaintza-lanak, alegia, zeinak emakumeek egiten dituzten batik bat). Bai natura, bai denbora mugatuak dira, ordea.

Naturaren muga materialei bizkarra emanda dihardu sistemak, eta, zenbaitetan, gainera, neurririk gabe ekiten die. Bestalde, ez zaio jaramonik egiten etxeko lanari ("gizarte-erreprodukzioa" deritzon horri), eta soldatapeko lan bihurtzen denean, oso kondizio eskasetan izan ohi da.

Naturaren eta gizakion aurkakoa da, erabat, egungo ekoizpen, banaketa eta kontsumo ereduak. Hiru mundu baino gehiago beharko genituzke Hego Euskal Herriko egungo sistemari eusteko eta mundu osora helarazteko; izan ere, nabarmen ari dira urritzen funtsezko gai batzuk (petrolioia eta ur geza, adibidez), eta teknologia ez da gai arazo horiek konpontzeko. Beraz, egungo bideak, hazkundearenak, ezin du luzaroan iraun. Ekonomiaren alderdi materialaren

deshazkundera iristen denean, iritsiko baita, justizia eta oreka sozialarekin eta ingurumenaren oreka mantenduz egin beharko litzateke. Jarduera ekonomiko guztiak ez dira onuragarriak gizartearentzat, ezta gutxiagorik ere. Hortaz, desafio gero eta premiazoago honi ekin beharko diogu hurrengo urteotan: bestelako ekonomia bat eraiki behar dugu, non ekoizpenaren oinarria bizitzari eustea den, ez bizitza suntsitzea.

Ekoizpen, banaketa eta kontsumo ereduaren erabateko aldaketa aldarrikatzen dugu, bizitzari lehentasuna ematea. ELAren mendeurrenako deklarazioan (2011ko uztaila), berretsi egin genituen gure klase-izaera eta gure abertzaletasuna, eta, horrez gain, beste hau ere azpimarratu genuen: ingurumenarekin lotutako gaiei gero eta arreta handiagoa egin behar zaiela. Eredu feminista ere funtsezko erreferentzia dugu alternatiba hori eraikitzeko, non bizitzaren iraunkortasuna den ardatza. Horretarako, baina, aurre egin behar zaio zerbitzu publikoen deslegitimazio ideologikoari, haien hondamenari eta pribatizazioari. Halaber, kontzientziazio lan berezia egin behar dugu langileen artean, lantegietan jarduten baikara, eta ingurumena zaintzen eta bizitza lehenesten duten ekoizpen-ereduak

aldarrikatu behar ditugu, eta eredu horiek abiarazteko trantsizio-prozesuak. Trantsizio hauek egun eragindako arlo eta enpresetan diharduten langileen etorkizuna aintzat hartu eta bermatu behar dute.

Ez da berria, inondik ere, proposatzen ari garen ikuspegia, ezta guk asmatua ere. Zenbait gizarte-mugimendurekin (sindikatuak, talde ekologistak, feministak...) partekatzen dugu irizpide hori, eta bat gatoz egoeraren diagnostikoan eta helburuan: herritarren bizimodua hobetzea, naturarekin bat eginik, gizakia-natura harremana jasangarria izan dadin.

## 2. Ingurumen atalaren garrantzia arlo konfederalean

ELAk arlo eta zerbitzu konfederaleratuak erakunde indartu behar dela ulertzen du eta hor kokatzen da atal ezberdinek sindikatuko eguneroko lanean duten garrantzia.

Aurreko atalean azaldu bezala, jasanezina da egungo ekonomia ereduak, eta horrek erantzukizun bat dakarkigu, sindikatu garen aldetik enpresetan jarduten baikara. Geroz eta gehiago ohartzen gara ingurumen arazoak gure agendara ekarri behar ditugula. Izan ere, enpresen eta langileen interesak ez datoz bat ingurumenari dagokionez ere.

Ingurumen arlotik, beraz, gai horrekiko barne sentsibilizazioa bultzatu behar dugu, gure aldarrikapen agendara eraman dezagun lantokietan. Horretarako, gai horri buruzko barne trebakuntza sustatu behar dugu, federazioekin eta eskualdeekin elkarlanean.

Gizarte eredu alternatibo baten aldarrikapena dela eta, hainbat borroketan jardun du ELAk azken urteotan; besteak beste, AHTren, Pasaiako portuaren, erraustegien eta fracking-aren aurkakoetan, eta Garoña ixtearen aldekoetan. Halaber, energia berriztagarrietan oinarritutako eredu energetiko bat aldarrikatu dugu; klima-aldaketaren aurka ere jardun gara. Hondakin gutxiago sortzea, eta sortzen direnak berrerabiltzea eta birziklatzea; garraio eredu jasangarri bat ere aldarrikatu dugu, baita elikadura burujabetza eta banaketa eta kontsumo eredu arduratsuagoa ere. Horren adibide dugu ELAn kontsumo taldea martxan jarri izana. Gizarte-arazo horiek jorratzen jarraituko dugu, beste erakunde sozial batzuekin elkarlanean.

Bestalde, aliantza sozialak sakontzen ere jardun da ingurumen atala, ingurumenari loturiko eragile ezberdinekin kontaktuan egoten eta aliantzak sakontzen lan egin da, bai hemen bai nazioartean. Zenbait goi-

bileratan hartu dugu parte (Kopenhagekoan, Cancúnekoan, Herrien Goi Bileran -Rio+20 zela eta-) eta, horri esker, zenbait esperientzia interesgarria ezagutu ditugu. Era berean, horrek gure burua ezagutarazteko eta harreman berriak izateko aukera eman digu, gure eguneroko lanean oso baliotsuak izan direnak.

### **3. Ingurumenari dagozkion ponentziako puntuei eginiko ekarpen eta emendakinak**

Azken lau urteetako kontzientziazio lanak eman dituen fruituak argi ikusi ditugu kongresuan. Ingurumen gaiei loturiko ekarpen eta emendakinak gehitu egin dira aurreko kongresuekin alderatuz eta ELAk azken lau urteotan izan duen lan ildoekin bat etorri baitira. Kongresuko delegatuek eginiko ekarpen eta emendakin hauek ponentzia aberasten lagundu dute.

Ekarpenen ildo nagusietako bat ELAk azken hilabeteetan landu duen desazkundearen aritik etorri dira: "Desazkundera iristen denean sistema kapitalista hazkunde ekonomiko fiktizio eta espekulatiboa mantentzen saiatuko da. Horregatik langileok desazkunde material hori desazkunde ekonomiko arduratsu batez lagundua izatea bultzatu behar dugu, bi

prozesuak justizia sozialean eta oreka sozial eta ingurumenarenean oinarrituak egon daitezten. Desazkudearen proposamenak ez dira bukatzen herrialde aberatsenen ekoizpen eta kontsumo mailen jaitsieran. Desazkudearen eztabaidak gaur egun gizartean indarra duten baloreetatik ezberdinak diren baloreen defentsa eskatzen du.” Beste ekarpen bat, desazkudearen diskurtsoarekin lotura zuzena duena, lanaren banaketari eta 35 orduei loturikoa da: “Lanaldia. Elementu zentrala da, eta izango da, bai soldaten ikuspegitik, bai enpleguaren sorreraren ikuspegitik. Zenbat eta lanaldi luzeagoak, orduan eta langabezi tasa altuagoak. Lanaldiaren murrizketa, soldaten igoerarekin batera, Hego Euskal Herriko langabetuei eskaini diezaiekegun alternatiba bakarra da. Zentzu honetan, 35 orduko lan astearen eztabaida indartu behar dugu berriro.”

Elikadura burujabetzaren ildotik, eta berau desazkudearekin lotuz, ekarpenak jaso dira: “jarduera ekonomiko guztiak ez dira onuragarriak, ezta gutxiagorik ere. Hurrengo urteetan gero eta larriagoa den erronkari egin beharko diogu aurre: ekonomia ezberdin bat sortzea, ekoizpena bizitza mantentzeko loturik egongo dena, eta ez bizitza

suntsitzeari. Bide honetan milaka kilometro egiten dituzten produktuak baztertu eta Euskal Herrian landatutako eta ekoiztutako produktuen kontsumoa bultzatu behar dugu jendea kontzientziatuz. Horrela tokiko ekonomia biziberrituz eta eredu jasangarriagoa lortuz.”

Negoiazio kolektiboa eta ingurumena lotzen dituen ekarpen bat ere egin da “lan zentroetara ingurumenari loturiko errebindikazioak eraman behar dira”. Gero eta kontzienteago gara ingurumenak duen garrantziaz.

Bukatzeko eta ingurumen arlotik egin dugun emendakina azaltze aldera, esan behar da, ponentzia idatzi eta eztabaidatzen aritu garen bitartean ingurumen atalean lan ildo berri bat aztertzen aritu garela eta hurrengo urteetarako erreferentzia izan dadin, ponentzian sartzea ezinbestekoa iruditu zaigu: “Krisi klimatiko, ekologiko, sozial, ekonomiko, eta azken finean sistemiko, honen irtenbide bakar bezala ekonomiaren benetako transformazioa bultzatu behar dugu, ekonomiaren birmoldatze sozial eta ekologikoa: energia eta garraio ereduak aldatzea ezinbestekoa izango da, berotegi efektuko gasak isurtzen eta hondakin kantitate handiak sortzen dituzten sektoreak

birmoldatu beharko dira, iraunkorrak diren sektoreak indartu behar dira enpleguak sortzeko, eta ekonomia birlokalizatu behar da. Inoiz baino beharrezkoagoa da ekoizpen, banaketa eta kontsumo ereduak aldatzea, eta justizia sozialarekin egitea, beste modurik ez baitago krisi honetatik irteteko.”

Ponentzia bera eta onartuak izan diren zuzenketa eta ekarpen guzti hauek hurrengo lau urteetarako lan ildoak zehaztuko dituzte.

#### **4. Etorkizuneko lan ildoak ingurumen atalean**

Hurrengo lau urteetarako lan ildoak, alde batetik, orain arte egin dugunaren jarraipen bat izango dira. Orain arte formakuntzaren arloari garrantzi handia eman diogu eta honek horrela izaten jarraituko du. Formakuntzaren arloa bi zatitan bereiztu daiteke, batetik ELAko industria federazioetan egiten dena eta bestetik sindikatuaren baitan denok jasotzen duguna. Industriari loturiko formakuntza batez ere ingurumenak enpresan duen garrantzian dago zentratuta: ingurumen arloan enpresak bete beharreko legedia, ingurumen baimen bateratua, ingurumenak enpleguaren mantenimenduan duen garrantzia,... Bestalde, sindikatuko kuadro guztiei ematen zaien formakuntza gai ezberdinen inguruan jorratzen da: elikadura

burujabetza, desazkundera, azpiegitura handiak (AHT, Pasaiko portua,...), hondakinen gestioa, ... Gai hauetako batzuk orokorrean lantzen ditugu eta beste batzuk eskualde bakoitzean lantzen dira tokian tokiko errealitatearen arabera. Lan ildo hau estrategikoa da eta honetan lan handiagoa egingo dugu hemendik aurrera.

Gainera, beste talde eta eragile batzuekin lanean jarraitzea ezinbestekoa izango da indar metaketa handiago bat lortu eta eredu sozial justuago baten alde borroka egiteko. Ildo honetatik jarraituz, nazioarteko aliantzei ere bere garrantzia ematen diogu eta horretan ere lanean arituko gara, kanpoan esperientzia berriak ezagutzeak hemen, Euskal Herrian, alternatiba ezberdinak planteatzeko balio izan baitigu orain arte eta ildo beretik jarraituko dugu.

Bestalde eta lan ildo berri bat bezala hartuz, ekonomiaren birmoldaketa ekologiko eta sozialean egingo dugu azpimarra. Azken hilabeteetan desazkunderaren ideiak lantzen aritu gara eta, pausu bat haratago eman nahian, etorkizunean jasango dugun desazkundera modu ordenatu eta justuan gerta dadin aurrea hartu nahi diogu aldaketari eta azterlan sakon bat egin etorkizunean sektore konkretu batzuetan gertatuko dena

aztertuz: zein sektore joango diren gainbeheran, zeintzuk berpiztuko diren, galduko den eta sortuko den enplegu kopurua, arlo publikoak trantsizio honetan bete beharreko papera,... Dударik gabe hau izango da hurrengo urteetan ingurumen arloan eta sindikatuan izango dugun erronka nagusietako bat eta aldaketa justuagoa izan dadin aurre hartzeko prestatuko gara.

### **5. Gomendatutako bideoa**

Etorkizuneko erronkei aurre egiteko iraganean egin duguna ere ezagutu behar da eta bideo honetan argi ikusi dezakegu orain arte egin dugunak etorkizunean ekarriko duguna, hobe esan, dagoeneko ekarri duguna. 3 minutu soilik dituen bideo bat da, gertatzen ari zaigunaren erakusle garbia. Klikatu [hemen](#) bideoa ikusteko.